AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3687

640/2013 EBAZPENA, abuztuaren 1ekoa, Galdakao-Usansolo Ospitaleko zuzendari gerentearena, José Antonio Gutiérrez Escorza jauna, zerbitzu eginkizunetan, Antolamendu eta Informazio-sistemetako zuzendariorde lanpostua betetzeko izendatzen duena.

Galdakao-Usansolo Ospitaleko Antolamendu eta Informazio-sistemetako zuzendariorde lanpostua 2013ko ekainaren 10ean EHAAn argitaratu zen (110. zenbakia), Zuzendaritza honen 2013ko apirilaren 17ko 227/2013 Ebazpenaren bitartez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, José Antonio Gutiérrez Escorza jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza honek honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– José Antonio Gutiérrez Escorza jauna, zerbitzu eginkizunetan, Galdakao-Usansolo Ospitaleko Antolamendu eta Informazio-sistemetako zuzendariorde izendatzea.

Bigarrena.– Izendapenak 2013ko abuztuaren 5etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak, eta jabetzan duen lanpostua gordetzeko eskubidea emango du.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2013ko abuztuaren 1a.

Galdakao-Usansolo Ospitaleko zuzendari gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.